

MALLORCAKO ADIERAZPENA

**CESMren ustez, onartezina da
Esparru-estatutuaren berrikuspenean
gertatzen ari den eskubide-murrizketa**

- **Konfederazioaren adierazpenarekin bat egin dute Metges de Catalunya, Andaluziako Medikuen Sindikatuak eta Euskadiko Sendagileen Sindikatuak, egungo sindikatuen kohesio medikoaren erakusgarri.**

Mallorca, 2023ko maiatzaren 5a: Sindikatu Medikoen Estatuko Konfederazioak (**CESM**) jakitera eman nahi du, Batzorde Betearazleak Balearretako hiriburuan egindako bileraren ondoren, **Administrazioa** azken hilabeteetan uztailaren 5eko 12/2022 Errege Lege Dekretua betetzeko **Esparru-estatutuaren** berrikuspenean **ezartzen ari den negoziazio-eredua eta -modua erabat arbuiatzen dituela.**

Ildo horretan, CESMek eskatzen du negoziazio-modu hori errotik alda dadila, **prozesu arinagoa, gardenagoa eta epe motzagokoa izan dadin**, denbora gehiago luzatu gabe; izan ere, lanbidea erregulatzeko beharra premiazkoa da, Osasun Sistema Nazionalean bizi den egoera larriaren aurrean. Horregatik, Konfederazioaren aldarrikapena, hasieratik, sendagilearentzako eta fakultatiboarentzako estatutu espezifiko bat egitea izan da, sendagileari eragiten dioten baldintza bereizgarriak jasoko dituen.



Beste behin ere, **CESMek arau propio bati buruz duen eskakizun hori** honako gai hauetan oinarritzen da: **lanaldi osagarriaren erregulazioa** – nekagarritasunaren araberako ordainsaria (aparteko orduak, Europako parekatzea); guardien

nahitaezkotasuna indargabetzea eta 24 orduen nekagarritasuna berrikustea; irteerak eta atsedanak erregulatzea, lanaldia egindako guardien kopurura egokituz; guardien ordainsariak sartzea aparteko ordainsarietan, gaixotasunagatiko eta erretiroagatiko bajetan, eta guardia horiek erretirorako lan egindako denbora gisa zenbatzea –, **mugikortasunerako eta fakultatiboak hautatzeko arau-esparru komun bat**, sendagilearentzat **A1+ kategoria** ezartzea edo lanaldiaren barruan **prestakuntzarako, irakaskuntzarako eta ikerketarako denbora sartzea**. Proposamen horietan guztietan, Konfederazioa buru-belarri aritu da lanean, Administrazioak egindako ekarpenak kontuan hartu gabe.

lido horretan, eta egunotan Osasun Ministerioak profesionalak **guardietatik salbuesteko adina 60 urtera luzatzeko aukera** lerratzearen inguruan sortu den polemikaren ondorioz, Konfederazioak azpimarratzen du, Negoziazio Eremuan bertan eta ondorengo balorazioan egin zuen bezala, **marra gorri gaindiezina dela, eta ez duela onartuko hori gauzatzea**. Urteak daramatzagu salatzen ez dagoela, ez osasun-kudeatzaile profesionalik, ez giza baliabideen plangintzarik. Gabezia horiek ezin dira ordeztu lanbide medikoaren kontura, egungo baldintzak eta eskuratutako eskubideak okertuz.

Guardietatik salbuesteko adinaren handitze hori planteatzeko ideia bakarra zera da, **Administrazioak medikua esklabismora kondenatzeko joera duela** onartzen hastea, aurreko mendean lortutako lan-eskubide bat ezabatuz. Profesionalen eskasia eta gaur egungo plantilla murriztuak ezin dira konpondueginbeharrak beste kategoria batzuetara eramanez, ezta Osasun Sistema Nazionaleko medikuak muturreraino estutuz ere. Argi dagoena da defizita plangintza txarraren eta osasun-sistemak eskaintzen ari diren baldintza kaskarren ondorio baino ez dela. Egoera horren aurrean lor daitekeen baliabide bakarra, jarduneko profesionalak atxikitzea eta unereren batean dena bertan behera utzita alde egitea erabaki dutenak erakartzea lortzeko, **lan-baldintzak hobetzea da, Espainian lan egitea erakargarri izan dadin**, eta Estatutu mediko bat da une honetan profesionalentzat hobekuntza horiek ezartzea ahalbidetuko lukeen arau gakoa, eta Administrazioa aukera hori gutxiesten ari da.



Bestalde, eta dokumentu ofizial bakar batean ere islatu ez bada, CESMek gogorarazi nahi du Osasun Prestakuntza Espezializatua ez dela profesional prekarioen fabrika bat, eta ezin direla egiturazko plantilla gisa erabili zerbitzu jakin batzuetako langileen defizitak estaltzeko. Hori dela eta, **aho batez baztertu du egoiliarrek prestakuntza espezializatua amaitu ondoren egin duen zerbitzuan jarraitzeko duen betebeharrari buruzko edozein ideia**. Ildo horretan, profesionala erakartzeko edo fidelizatzeko modu bakarra Prestakuntza espezializatuko langileen lan-harremanei buruzko urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretua eguneratzea da, haien lan-baldintzak hobetzeko.

Lanbide medikoaren ordezkari gisa, sindikatu autonomiko konfederatu guztiak, Metges de Catalunya, Andaluziako Medikuen Sindikatua eta Euskadiko Sendagileen Sindikatuz gain, aho batez agertu dira azken egunetan eskubideen **balizko murrizketei buruz eman diren informazioak aurrez aurre gaitzesteko**, eta ohartarazi dute, **Administrazioak profesionalen aurkako tratu txarrekin jarraitzea eta aipatutako marra gorriak gurutzatzea erabakitzen badu**, neurri sendoak hartuko direla, datozen hilabeteetan **gatazka nazionala** sortuko dutenak.

